

Udalak Kultur Etxeko lanak amaitu ondoren instalazioetara itzultzea bermatzen die Gaztetxeko erabiltzaileei

Gaur goizean eman diete erabakiaren berri Gaztetxeko hainbat ordezkariari, Laudioko alkatea, Gazteria zinegotzia eta Zerbitzu eta Auzoetako zinegotzia bertan zirela

Lamuzako parkean dagoen Laudioko Gaztetxeko egungo erabiltzaileak instalazioetara itzuli ahal izango dira behin Kultur Etxean egiten ari diren lanak amaituta. Hala jakinarazi zaie gaur goizean gazte proiektuaren hainbat ordezkariari, **Ander Añibarro** Laudioko alkateak berak, **Juan Jesus Merchan** Gazteria zinegotziak eta **Joseba Amondo** Zerbitzu eta Auzoetako zinegotziak parte hartu duten bileran.

Itzulera bermatzeaz gain, gune bat izango dute herrian, obrak irauten duten bitartean behar dituzten objektu edo tresna guztiak gorde ahal izateko. Espazioa husteko erabakia uztailean jakinarazi zen, oraindik data zehatzik ez zegoenean; hala ere, urrian beste jakinarazpen ofizial bat helarazi zuen Udalak, 2020ko urtarrilaren 7an utzi beharko zela adieraziz.

Beharrezkoak ez diren segurtasun-arriskuak saihesteko neurri bat da; izan ere, birgaitze-lanak Kultur Etxeko zenbait gunetan egiten hasi dira, eta datozen hilabeteetan aurrera eramango dira, besteak beste, leihoak aldatzea, pintatzea eta eraikinaren estalkia edo teilatua konpontzea.

Hau dela eta, Udalak bere burua ikusi du azken hilabeteetan orain arte Kultur Etxean garatzen aritu diren hainbat tailer, ikastaro edo ekimen birkokatzeko betebeharrean.

Haurrentzako ludoteka zerbitzua ere aldi baterako geldiarazi behar izan da; izan ere, obrak abian jartzean, ez zen bermatzen, batez ere adingabeei zuzendutako eskaintza zelako.

Gobernu taldearen lana eta konpromisoa

Egungo gobernu-taldea iritsi zenetik, aurtengo ekainean, lanean aritu gara, udal-teknikariekin batera, aurreko udal-kudeatzaileek sortutako plangintza-faltak eragindako arazo guztiak konpontzeko, Kultur Etxeko obra horiei dagokienez. Bitxia bada ere, duela urte askotatik zegoen aurreikusita exekuzio hori.

Hala ere, Ander Añibarro alkatea buru duen tokiko gobernuari egokitu zaio tailerretarako eta/edo ikastaroetarako espazioak birkokatze lanak egitea, ez baitzen aurreikusi espazio alternatiboetara lekualdatzeko planik.

Ildo beretik, duela aste batzuk, Gobernu Taldeak konpromisoa hartu zuen Haurren Ludotekarako leku berri bat bilatzeko lan egiteko, eta, une honetan, kokaleku berriaren xehetasunak amaitzen ari dira. Kokapen hori, hain zuzen, aldi baterako izango da, datozen egunetan familiei lekualdatuko zaizkien obrek irauten duten bitartean.

Hainbat astez lanean aritu ondoren, Gobernu Taldeak irtenbide egingarri eta egonkorra emango dio arazo honi, lehenago jakinarazi bezala, Udalak dituen espazio publiko egokituak falta direla eta, ezin izan baita lehenago konpondu.

Amaitzeko, Gobernu taldeak Lamuzako parkean egiten ari diren lanek eragindako eragozpenak eskertu eta berriro ere barkamena eskatu nahi du.